

IBINAGABEITIA'tar ANDIMA'k

Caracss'tik Daguenillak 8-1957

YAKIN'en suzendsariari:

Aba agurgarri: Egun batzu lenago eskuetara sitzaidean YAKIN aldiiskariaren irugarren banakoa. Adiskide batek utzita bigarrena irakurtzeke aukera izan zuen eta esan bearrik ez zenbaki biak ioranez irentsi ditudanik, euskalzale bati dagokion poz-atsseginez dardar. Gazteak datoskigu kantari, gasteak datoskigu aldarrakari euskeraren gandu belunak bare aote argi ta ozenetan urratzen. Biziex erpiñera iritxita zuzen luraren magal espelera lerratzen ahi geranok, nola postu ez? Simeonenak ioteko gerairaz ez nahi oraindik eldu, ala ere euskal-Mesia berri zu ekuartean jaso dudanean alako "nunc dimittis"... eder bat ciustatzeko goge kisia sortu saitz. Ez naiz geiegikeriz ari.

Apaiz-gsi gasteek gaiñera, irizpida sabalenaz jantzia datoskiga aldiiskari entan, bai gaiari buruz, baita ikarari dagokionetik ere. Ertsikeriak berez, urri eta txiki-zerre garasmazki. Maizstroegi ikusi izan dugu ori gure alorean, bear baiño maizago. Norbaitek Orixe'ren kutsua darila zuen euskerak iaurti dizute. Ez dakit iraiñez bota ete disuten erdagotxo ori. Ala balitz goropenik sundiena egin disute gogoz-bestera badare. Euskal iturri gardenagorik ez dusatutu iñun arkituko. Ogeitamar urtez gero euskal idasketan ari geranok iturri ortan eradan ditugu geure gogoak, eta zuen ere ola bearko dituzute. Iakiñia beste idazle argi zenbait ere ez dira astantzekoak zar eta berrien artean. Euskal-ideazleok beti bear dugu irakur-miñez. Iskera bat egiten ari gera, inkera bat iasotzen, eta ortarako danon alegiñak dira onak. Norbaitek euskerak eginda dagoela iardetsiko dit, bai eginda dago, zenbait gaietan ordea, araindik egiten, bear genuean zabaleran eta sakomera gure aberri-iskera erabilliz es dugulako gaurdaño. Eta zuen Apaiz-gai azkarrok, aspalditik euskerarentzat opa ditugum gaindagiak iristen ari zera-te. Zuen lan ori, uste baiño len, Eliz Amaren apaingarri bikaiñema gertatuko da, nais-ta egungo eliz-agintariekin besterik uste. Betik gerako alegiñak maiñ goitik berakoak baiño eraginkerragoak izaten ditu.

UTSURETXO batzu arkitu ditut zuen lankideen artean; auze bat: BIZKAIKO APAIZGAIKIRIK EZ DUT IKUSI IDAZLEEN ARTZAN. ANGO SEMINARIOAN EZ OTE DAGO EUSKALDUNIK? Bizkaitar
rra naizenes ori pentsatuta beste gabe negargura datorkit...

Aurrera Yakin ari duzun bide ortatik eta zuen izarraibide argiaren erlantzera beste euskaldun gazte iskitunak ere piskortuko al dira, bakoitsak bere saillean suena bezelako lan ederra burututseko.

Cuk emen gutxi egin dezakegu, baiñan ez disutegu gure laguntasunik ukatuko. Saituko naiz zuen aldiiskarirako arpidedunak billatzen, ez dakit zenbat, al ditudanek bai beintzat.

Lesater iasoko dituzute gure berriak. Anartean ameslari zar onen txalo beroenak ar iskitzute.

Ibinagabeitia 'tar Andima.